

# ordizio

herri  
aldizkaria

# 06 | udaberria

2023 martxoa

UDAL INFORMAZIOA: Ordiziak oraingoz  
**3.794.122,40 euro lortu ditu** Next  
generation-en laguntza deialdietatik. 2-3-4 or.

HERRITARRAK:  
**Elkarrizketak:** Pedro Garcia. 8-9-10 or.  
Twin Melody. 10-11 or.

## Estalpe eta jolas eremu berria Barrenako parkean





## ORDIZIAK ORAINGOZ **3.794.122,40 EURO** **LORTU DITU** NEXT GENERATION-EN LAGUNTZA DEIALDIETATIK



**Kopurua / Importe:**  
**2.920.000 euro**

**Epea / Plazo: 2025erako**  
**amaituta**

**Proiektuak/ Proyectos:**  
**Oiangu, D'elikatuz eta**  
**Gaztandegia**

Ordiziako Udala Next Generation dirulaguntzen hiru deialdian aurkeztu da. Abenduan eman ziren jakitera Turismoko bigarren Lurralde Planean onartutako proiektuak eta bertan, Ordiziak 2,9 milioi euro eskuratu ditu, 2.920.000 euro, zehazki, *Ordizia, lurraldearen dastamena* proiektua garatzeko. (*Plan de recuperación, transformación y resiliencia de la UE. Programa extraordinario de planes de sostenibilidad turística en destinos (Ministerio de Industria, Comercio y Turismo).*)

Laguntza honen baitan hiru lerrotan egingo da lan. Lehenengoa Oiangu eraberritzeko, Oiangu baserria aterpetxe bezala egokitzeko eta Oianguko golf zaharraren eraikina balio anitzetarako harrera eraikin bezala egokitzeko izango da. Bigarrena D'elikatuz zentroa Goierriko bisitarien arreta guneta eta Ordiziako azokaren interpretazio zentro bilakatzeko, eta hirugarrena Ordiziako gaztandegia birkokatzeke.

Planaren ardatza Ordiziako harrera-azpiegiturak hobetzea da. Ordizia Goierri eskualdearen sarbidea da eta Oiangu, Aralar Parke Naturalekoa. Produktu turistiko naturala da, eta paisaia-, ondare-, kultura- eta gastronomia-mugarriak balioesten ditu, iraunkortasun hirukoitzeko irizpideekin: ingurumena, ekonomia eta gizartea. Ordizia Goierria

sartzeko sarbide gisa indartzea da helburua, bisitarien harrera hobetuz, eskualdea baserrietan (baserriak), landa paisaiaren ustiapen txiki jasangarrietan (Km0-ko produktuekin asteko azoka elikatzen dutenak) eta balio natural handiko espazioetan oinarritutako ulermena emanez.

Adur Ezenarro, Ordiziako alkatea: *"Izugarrizko albiste ona da hau Ordiziarentzat, ia hiru milioi euro lortu direlako. Lan handia egin dugu deialdi hauetara proiektuak aurkezteko, baina esfortzua bere fruituak ematen ari da"*. Deialdi honetan, eskatutakoaren %92,5a lortu da.

Adur Ezenarro, alcalde de Ordizia: *"Esta es una gran noticia para Ordizia porque se han conseguido casi tres millones de euros. Hemos trabajado mucho para presentar proyectos a estas convocatorias, pero el esfuerzo está dando sus frutos"*. En esta convocatoria se ha obtenido el 92,5% de lo solicitado.

En diciembre se dio a conocer el proyecto aprobado en el segundo Plan Territorial de Turismo, en el que Ordizia ha obtenido 2,9 millones de euros, 2.920.000 euros, para desarrollar el proyecto "Ordizia, saboreando territorio". (*Plan de recuperación, transformación y resiliencia de la UE. Programa extraordinario de planes de sostenibilidad turística en destinos (Ministerio de Industria, Comercio y Turismo).*)

Dentro de esta ayuda se trabajará en tres líneas. La primera será para reformar Oiangu, acondicionar el caserío Oiangu como albergue y el edificio del antiguo golf de Oiangu como edificio de



acogida polivalente. La segunda para convertir al centro D'elikatuz en el centro de atención a los y las visitantes del Goierri y en el centro de interpretación de la feria de Ordizia, y la tercera para la reubicación de la quesería de Ordizia. El plan se centra en la mejora de las infraestructuras de acogida de Ordizia. Ordizia es el acceso a la comarca del Goierri y Oiangu, del Parque Natural de Aralar. Se trata de un producto turístico natural que valora los

hitos paisajísticos, patrimoniales, culturales y gastronómicos con criterios de triple sostenibilidad: ambiental, económica y social. Se trata de reforzar Ordizia como acceso al Goierri, mejorando la acogida de los y las visitantes, dando una comprensión basada en los caseríos, pequeñas explotaciones sostenibles del paisaje rural (que alimentan la feria semanal con productos de Km0) y espacios de alto valor natural.



**Kopurua / Importe:**

**1.092.653 euro** (874.122,40 Next dirulaguntzan lortu dira eta gainontzeko 218.530,6 euroak Udalak jarriko ditu)

**Epea / Plazo: 2024rako amaituta**

**Proiektuak/ Proyectos: Plaza Nagusia eta Azoka**

Ordiziako Udalak Next Generation dirulaguntzen bigarren deialdiaren ebazpena ere jaso du: 874.122,40 euro lortu ditu *Ayudas para el apoyo a mercados, zonas urbanas comerciales, comercio no sedentario y canales cortos de comercialización (Ministerio de Industria, Comercio y Turismo)* deialditik, bertako azoka eta merkataritza garatu eta sustatzeko estrategia garatzeko.


*"Izugarritzko albiste ona da hau. Abenduan jakin genuen Ordiziak 2,9 milioi euro eskuratu zituela 'Ordizia,*

*lurraldearen dastamena' proiektua garatzeko eta orain Ordiziak 874.122 euro gehiago eskuratu dituela ospatzen gaude. Lan handiko hilabeteak izan dira proiektu hauetara aurkeztu ahal izateko, baina esfortzuak badu saria eta oso pozik gaude Ordiziarentzat albiste bikaina delako",* azaldu du Adur Ezenarro, Ordiziako alkateak.

Hala, Ordiziako azoka eta merkataritza garatu eta sustatzeko estrategiarako 1.092.653€ eskatu dira eta guztira 874.122,40 euro lortu dira, beraz, eskatutakoaren %80a lortu da. Proiektua gauzatzeko gainontzeko 218.530,6 euroak Udalak jarriko ditu.

Hainbat lan lerro proposatzen dira. Batetik, Plazaren estalkiaren eraikina eraberritzea (egitura, estalkia, argiteria, azpiegitura orokorrak, klimatologiatik babesteko elementuak...) 765.573,60€ (Ordizia 2030 Ekintza Plana 18.4).

Estalkian panel fotoboltaikoak jartzeko 97.479,68 euro (Ordizia 2030 Ekintza Plana, 13.4), eta azokako elementuak modu jasangarrian eraberritzea, 133.000 euro (Ordizia 2030 Ekintza Plana 18.2). Atal honetan sartzen da postuak eraberritzea (oihalak, informazioa...) 10.000 euro; azokako



**“Ordiziako Plaza estaliak 100 urte beteko ditu 2025ean, eta bost mende gainditzen dituen gure azokaren estalkia izan ez ezik, herriko bizitzaren gunea ere bada eta hiriguneko merkataritzaren dinamizaziorako gakoa”.**

*“La Plaza Cubierta de Ordizia cumple 100 años en 2025 y no sólo es la cubierta de nuestra feria, que supera los cinco siglos, sino también el centro de la vida del pueblo y clave para la dinamización del comercio en el centro de la localidad”.*

espazio lagungarriak (informazio postuak, sukaldea, pop up postua...) 55.000 euro; packaging jasagarria (poltsa erabilgarriak, sentsibilizazio kanpainak...) 20.000 euro; takila adimendunak 18.000 euro eta hondakinen kudeaketa jasagarria 30.000 euro. Puntu hauek Ordizia 2030 Ekintza Plana, 12.26 atalean jasota daude.

Azokaren, merkataritzaren eta ostalaritzaren sustapenari dagokionez, eta seinaletika berria, merkataritza, historia eta kultura ibilbideak adierazteko 30.600 euro bideratuko dira. Transformazio digitala erronka bat izanik, horretarako 66.000 euro. Bertan, bezeroen fidelizazioa garatzeko datuen kudeaketa sistema, azokaren erakusleho digitala, merkataria eta saltzaileei formazioa eta plazan WiFi egokitzea daude (Ordizia 2030 Ekintza Plana 18.3).

El Ayuntamiento de Ordizia ha recibido también la resolución de la segunda convocatoria de subvenciones Next Generation, que ha obtenido 874.122,40 euros de la convocatoria *Ayudas para el apoyo a mercados, zonas urbanas comerciales, comercio no sedentario y canales cortos de comercialización (Ministerio de Industria, Comercio y Turismo)* para el desarrollo de la estrategia de desarrollo y promoción de la feria y el comercio local.


*“Esta es una gran noticia. Hace apenas unos meses supimos que Ordizia obtuvo 2,9 millones de euros para desarrollar el proyecto ‘Ordizia, saboreando territorio’ y ahora celebramos que Ordizia se ha hecho con 874.122 euros más. Han sido meses de mucho trabajo para poder presentarnos a estos proyectos, pero el esfuerzo tiene su recompensa y estamos felices porque es una gran noticia para Ordizia”,* explica Adur Ezenarro, alcalde de Ordizia.

Así, para la estrategia de desarrollo y promoción de la feria y comercio de Ordizia se han solicitado 1.092.653 € y se han obtenido un total de 874.122,40 euros, lo que supone el 80% de lo solicitado. El Ayuntamiento aportará los 218.530,60 euros restantes para la ejecución del proyecto.

Se proponen varias líneas de trabajo. Por un lado, la reforma del edificio de la cubierta de la Plaza (estructura, cubierta, alumbrado, infraestructuras generales, elementos de protección frente a la climatología) 765.573,60 € (Plan de Acción Ordizia 2030 18.4).

97.479,68 euros para la instalación de paneles fotovoltaicos en cubierta (Plan de Acción Ordizia 2030, 13.4) y la reforma sostenible de los elementos del mercado, 133.000 euros (Plan de Acción Ordizia 2030, 18.2). En este apartado se incluye la reforma de los puestos (telas, información) 10.000 euros; los espacios auxiliares de la feria (puestos de información, cocina, puesto pop up) 55.000 euros; el packaging sostenible (bolsas, campañas de sensibilización) 20.000 euros; las taquillas inteligentes 18.000 euros y la gestión sostenible de residuos 30.000 euros. Estos puntos están recogidos en el apartado 12.26 del Plan de Acción Ordizia 2030.

En cuanto a la promoción de la feria, el comercio y la hostelería, así como la nueva señalética, las rutas comerciales, históricas y culturales, se destinarán 30.600 euros. Siendo la transformación digital un reto, para ello se destinarán 66.000 euros. Se incluye el sistema de gestión de datos para desarrollar la fidelización de la clientela, el escaparate digital de la feria, la formación a comerciantes, vendedores y vendedoras y la adaptación del WIFI en la plaza (Plan de Acción Ordizia 2030 18.3).



Urdaneta Eskolaren eraberritze jasagarria burutzeko 3.193.315,37 euro (BEZa barne) eskatu dira. Besteak beste, eraikinaren eraginkortasun energetikoa hobetzeko panel fotoboltaikoak, biomasa galdara, patioak estaltzeko sistema bioklimatikoak ezartzea aurreikusten da. Eraikin guztiak batuko dituen plataforma irisgarria eta pergola estalki berria ere bai, eta patioko espazioaren eraberritzea.

Oraindik ere ez da ebazpena jaso, baina datozen hilabeteetan horren berri izatea espero da. / Para llevar a cabo la reforma sostenible de Urdaneta Eskola se han solicitado 3.193.315,37 euros (IVA incluido). Entre otras medidas, se prevé la implantación de paneles fotovoltaicos para mejorar la eficiencia energética del edificio, caldera de biomasa y sistemas bioclimáticos para cubrir los patios. También la plataforma accesible que unirá todos los edificios, la nueva pérgola, y la reforma del patio. Aún no se ha recibido la resolución, aunque se espera que se conozca en los próximos meses.



## HASI DIRA BARRENAKO PARKEKO ESTALPE ETA JOLAS EREMU BERRIA ERAIKITZEKO LANAK

Barrenako parkearen estalkia eta barruko jolas berriak hornitzeko lanak otsail amaieran hasi dira.

Estalpearen lanak Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L enpresak egingo ditu eta aurrekontua 317.534,74 eurokoa da. Joko eremua, berriz, K1 Ekopaisaia SLL enpresak egingo du eta inbertsioa 94.801,28 eurokoa da. Lanak ekainerako amaituta izatea aurreikusten da. Ordizia 2030 Ekintza Planeko 12.36 puntua da hau.

*“Ordiziako parkeen inguruko lanketa egin zen prozesu parte hartzaile batekin, Ttipi Gara kooperatibaren bitartez eta horrela Ordiziako parkeen sarearen mapa bat egin zen, parke bakoitzaren ezaugarritzea egin zen. Ondorio garbi bat atera zen: Barrenako parke hau da Ordiziako parke zentrala, herri guztiarentzat funtzionatzen duena; eta badaudela beste parke batzuk auzoko izaera gehiago dutenak edo erabilera espezifikoagoa dutenak”, azaldu du Adur Ezenarro alkateak.*

Hori ez ezik, estalpe baten beharra ere adierazi zuten herritarrek parte hartze prozesu horretan: *“Ordizian baditugu eremu estaliak, hala nola, Plaza eta frontoi txikia, eta horietan adin batetik aurrerako haurrek jolasteko aukera badute. 0-6 tarteko haur horientzat, baina, guneak falta dira. Horregatik erabaki da herri guztiarentzat hemen eremua estaltzea”.*

Jolas eremu zabala izango da, 0-6 urte bitarteko haurrentzat bideratuta. *“Aurrerago kanpoko aldean gaztelu moduko bat jartzea ere aurreikusten dugu. Estalitako eremuan, 0-6 urteko haurrentzako jolas inklusiboak ezarri, eta orokorrean parke guztia eraberrituko da”.*

Gainera, parkea biziberritzeko aukera bat ere izango da Barrena parkearen berritzea. *“Beste hainbat lanketa martxan ditugu, hala nola, jolasak lorategian eta parke guztian zabaltzeko. Orain arte hemen egon dira itxita, hesituta, eta orain moldaketa berri honekin lortuko duguna da haurrak parke osoan zehar jolasteko aukera izatea, nahiz eta eremu nagusia jolasleku berrian izango den”, zehaztu du Ezenarrok.*

Las obras para acometer la cubierta del parque de Barrena y los nuevos juegos interiores han comenzado a finales de febrero. Las obras de la cubierta correrán a cargo de Iparragirre Eraikuntza



Lanak S.L. con un presupuesto de 317.534,74 euros. El área de juego la realizará la empresa K1 Ekopaisaia SLL con una inversión de 94.801,28 euros. Se prevé que las obras estén finalizadas para junio. Este es el punto 12.36 del Plan de Acción Ordizia 2030.

Se trabajó en torno a los parques de Ordizia mediante un proceso participativo, a través de la cooperativa Ttipi Gara: *“Se llegó a una conclusión clara: este parque de Barrena es el parque central de Ordizia, que funciona para todo el municipio; y hay otros parques que tienen más carácter de barrio o tienen un uso más específico”,* explica el alcalde Adur Ezenarro.

Además de esto, los vecinos y vecinas también manifestaron la necesidad de una cubierta: *“En Ordizia tenemos zonas cubiertas como la Plaza y el frontón pequeño donde los niños y niñas desde cierta edad pueden jugar. Para los y las de 0-6 años, sin embargo, faltan espacios. Por eso se ha decidido cubrir aquí la zona para todo el pueblo”.*

Será una amplia zona de juegos, destinada a niños y niñas de 0 a 6 años. Más adelante también se prevé la instalación de una especie de castillo en la parte exterior. En la zona cubierta se implantarán juegos inclusivos también para niños y niñas de 0 a 6 años y se reformará todo el parque.

Tenemos en marcha otros trabajos como la expansión de los juegos en el jardín y en todo el parque. *“Hasta ahora han estado aquí, dentro de la valla, ahora con esta nueva adaptación conseguiremos que los niños y niñas tengan la oportunidad de jugar por todo el parque, aunque la zona principal estará en la nueva zona de juegos”,* puntualiza Ezenarro.





## HERRITARREN ARGAZKIEK JANTZIKO DUTE MAJORI-ALTAMIRA



Majori-Altamira apaintzeko lehenengo argazki lehiaketa jarri zuen martxan Udalak, eta dagoeneko baditugu irabazleak. Guztira hamaika argazki saritu dira, eta batek sari nagusia eskuratu du. 50 euroko saria jaso dute eta sari nagusia 100 eurokoa izan da. Argazkiak laster kokatuko dira Majori-Altamira kiroldegian.

El Ayuntamiento puso en marcha el primer concurso fotográfico para decorar Majori-Altamira, y ya tenemos ganadores y ganadoras. En total se han premiado once fotografías, una de las cuales ha obtenido el premio principal. Han recibido un premio de 50 euros y el premio principal ha sido de 100 euros. Las fotografías se ubicarán próximamente en el polideportivo Majori-Altamira.

Hemen irabazleen zerrenda: Mikel Zabalegi *Emezetaklik*, Nekane de Juan, Miguel Caverio (2 argazki), Jon Biguri, Juan Carlos Martín, Jose Miguel Romero (2 argazki, sari nagusia), Iñaki Hidalgo (2 argazki) eta Javier Quiros.



## HARRERA JATORRI ATZERRITARREKO ORDIZIARREI

Ordizia harrera herria da, eta Udalak urratsak ematen jarraitzen du. Iazko urtean, lehen aldiz, jatorri atzerritarrekoa izan eta urte horretan errolatutako pertsonen harrera ekitaldia egin zitzaion, Batzar aretoan. Adur Ezenarro, Ordiziako alkatea: *"Elkar ezagutu eta elkarrekin Ordizia anitz eta eskuzabala osatzen jarraitu nahi dugu. Ongietorriak izan zaitezte ordiziar guztiok osatzen dugun komunitatera"*. Bide horretan, aurtengo ere harrera ekitaldia egingo da, 2023an errolatutako pertsonen ordiziarren komunitatera ongietorria emateko.

Ordizia es un municipio de acogida en el que el Ayuntamiento sigue dando pasos. El año pasado, por primera vez, las personas de origen extranjero empadronadas ese año fueron acogidas en el Salón de Juntas. Adur Ezenarro, alcalde de Ordizia: *«Queremos conocernos y seguir formando un Ordizia plural y generoso. Sed bienvenidos y bienvenidas a la comunidad que formamos los y las ordiziaras»*. En este sentido, este año se realizará un acto de recepción para dar la bienvenida a la comunidad ordiziarra a las personas empadronadas en 2023.



## INKLUSIOAREN ALDEKO URRATSAK



Ordizian inklusioaren aldeko urratsak ematen jarraitzen dugu. Ordizia Rugbyk errugbi inklusiboa garatzeko proiektua du, oinarri gisa gizartea osatzen dugun guztiok errugbiarekin elkarrekin gozatzeko aukera izango duena. Dagoeneko errugbi inklusiboaren hainbat jardunaldi egin dira hainbat elkarrekin laguntzarekin. Helburua, Bultza ligan parte hartuko lukeen talde finko bat osatzea da.

En Ordizia seguimos dando pasos a favor de la inclusión. Ordizia Rugby tiene el proyecto de desarrollar un rugby inclusivo, teniendo como base que todas las personas que conformamos la sociedad podamos disfrutar del rugby juntas. Ya se han celebrado varias jornadas de rugby inclusivo con la colaboración de diferentes asociaciones. El objetivo es formar un equipo fijo que participe en la Liga Bultza.



## 90 URTE BAINO GEHIAGOKO IBILBIDEA SARITUZ

Aurtengo Gipuzkoako Merkatariek Elkarteak 90 urte bete ditu eta ospakizunen baitan Ordizian jardunaldia izan da. Bertan, Ordiziako bi establezimendu omendu dira, 90 urte baino gehiagoko ibilbideagatik: Begue (1925) eta Garin (1904). Horrez gain, kasu arrakastatsu bezala Vicuña dendaren ibilbidea jarri da adibidetzat.

Zorionak ibilbide oparo honengatik eta eskerririk asko gure herria bizirik mantentzen laguntzeagatik!

Este año la Asociación de Comerciantes de Gipuzkoa cumple 90 años y dentro de las celebraciones se ha celebrado una jornada en Ordizia. En ella se ha homenajeado a dos establecimientos de Ordizia por sus más de 90 años de trayectoria: Begué (1925) y Garin (1904). Además, como caso de éxito se ha puesto como ejemplo la trayectoria de la tienda Vicuña.

¡Enhorabuena por esta fructífera trayectoria y gracias por ayudarnos a mantener vivo nuestro municipio!





## URPEKOAK LEHIAKETAN ARRAKASTA ORDIZIARRA



Aurtengo edizioan ere izugarriko giroa izan da Ordizia Urpekoak sarian. Josu Sarasola ordiziarra eta Irati Lakunza tolosarra izan dira irabazle 239 igerileriren artean, Oier Irisarri eta Irati Zufiaurre bigarren lekuan, eta hirugarrenean Josu Goya eta Mireia Bayes. Zorionak guztiei!

En esta edición también ha habido un gran ambiente en el premio Ordizia Urpekoak. El ordiziarra Josu Sarasola y la tolosarra Irati Lakunza han sido los ganadores entre 239 nadadores y nadadoras, con Oier Irisarri e Irati Zufiaurre en segundo lugar, y Josu Goya y Mireia Bayes en tercer lugar. ¡Enhorabuena a todas y todos!



## BARRENA JAUREGIKO IGOGAILU BERRIAREN LANAK, AMAITZEAR

Badoaz aurrera Barrena Kultur Etxean igogailu berria sortzeko lanak. Igoigailua kokatu den zuloa dagoeneko egina dago eta igogailu berria kokatzeko lanak ere egin dira. Apirilera obra guztia amaituta egongo dela aurreikusten da.

Ya avanzan los trabajos del nuevo ascensor en la Casa de Cultura Barrena. El hueco en el que se ha instalado el ascensor ya está realizado y también se han realizado trabajos para su ubicación. Para abril se prevé que toda la obra esté terminada.



## LAU APARKALEKU BERRI ALTAMIRAKO ANEXOAN

Altamira Estadioko anexoan lau aparkaleku berri sortu dira. Lehendik zeuden isletak kenduz aparkatzeko espazio gehiago lortu da.

En el anexo del Estadio de Altamira se han creado cuatro nuevos aparcamientos. Se ha conseguido más espacio eliminando isletas.



## KONPONKETA ETA GARBIKETA LANAK

Herrigunean zein auzoetan garbiketa eta konponketa lanekin jarraitzen dugu. Ohiko lan horiez gain, oinezkoen segurtasuna eta autoen igarobidea hobetzeko helburuz berrikuntza lanak ere egin dira San Bartolome kalean. Hesi berriak kokatu dira, eta margoketa lanak ere egin dira.

Continuamos con las labores de limpieza y reparación tanto en los núcleos de población como en los barrios. Además de estos trabajos habituales, se han realizado obras de renovación en la calle San Bartolomé con el objetivo de mejorar la seguridad de los peatones y el paso de los coches. Se han colocado nuevas vallas y también se han realizado trabajos de pintado.



## ORDIZIA KIROL SARIAK

Izugarria Ordizian eta Ordiziako kirol taldeetan dugun kirolarien maila. Banatu ditugu Ordizia Kirol Sariak, eta hona hemen sari nagusiak:

Tremendo el nivel de deportistas que tenemos en Ordizia y en los equipos deportivos de Ordizia. Hemos repartido los premios Ordizia Kirol Sariak, y estos son los premios principales:

Sari Nagusia - Gran Premio: Iraia Mendia

Urteko kirol taldeari saria - Premio al equipo deportivo del año: Ordizia Rugby Elkartea

Kirolarien alde egindako lanagatik saria - Premio por su labor en favor de los y las deportistas: Marcial Garmendia

Herritarren Sarian guztira 600 bozka baino gehiago jaso ditugu, eta sari honen irabazlea Andoni Zubiaurre izan da. En el Premio de la Ciudadanía hemos recibido más de 600 votos, y el ganador de este premio ha sido Andoni Zubiaurre.

Horiez gain, diplomak ere banatu ditugu gure kirolarien denboraldiari aitortza eginez - Además, hemos repartido diplomas en reconocimiento a la temporada: Odei Rodríguez, Erlantz Garmendia, Amaia Erbinak, Aimar Alustiza, Ane Torres, Pedro García, Irenia Apaolaza, Lourdes Intxausti, Leire Tobar, Nora Tobar, Unax García, Samuel Vega, Ane Barandiaran, Danel Perez, Iraia Mendia, Dorleta Oiarbide, Andoni Zubiaurre, Paula de Juan, Ane Gonzalez, Hodei Caballero, Josu Goya, Oier Alkorta, Leire Jiménez, Endika Mate, Julen Goia eta Liher Sarriegi.

Zorionak guztioi egin duzuen denboraldi bikainagatik!



# “Orain, ordainduta ere ez nintzen Everestera joango”



## Pedro Garcia

### 7.126 metroko Himlung mendia azaroan igo berritan, berriz ere mendian pentsatzen zaude?

Bai, Amalia Iglesias nire emaztearekin batera joango naiz udan hainbat mendi egitera, India aldera joatea da gure asmoa, eta 6.000ko mendi batzuk egitea. Ez ditugu oso mendi teknikoak egingo, gutxi sufritu eta gozatzea da gure asmoa. Ondoren, lagunekin 8.000koren bat egitea ere gustatuko litzaidake, baina oraindik ez dago zehaztuta eta ez da horren erraza izango.

Azken batean, nire lagun taldeko askoren planetan orain ez dago 8.000 mendi bat igotzea, eta normala da, familia tarteko, beste plan batzuk dituzte. Eta noski, itsu-itsuan konfiantza izan behar duzu joaten zaren pertsonarengan. Altuera horietan edozein pauso txiki zure bizitza jokoan jar dezake, eta une horietan, laguntza behar baduzu, garbi izan behar duzu albokoak ahal duen guztia egingo duela zu hor ez uzteko. Lehenengo nire lagunak daude, eta ondoren mendia.

### Materialean ere hobekuntzak egongo ziren.

Izugarrizko aldaketak egon dira materialean. Larruzko mendiko botak eta pioletak egurrezkoak erabiltzen zituzten orain urte batzuk. Pertsona horiek oraingo materiala izan balute, mundua jango zuten. Kalitatean ez ezik, pisuan ere aldaketa handia egon da. Gaur egun material oso onak egiten dira eta oso arinak dira.

### Azken urteetan, mendizaletasunean aldaketak nabari izan dituzu?

Esango nuke, tamalez, mendizaletasunaren xarma hori galtzen ari dela. Jende asko gailurrak egitera baino ez da joaten, ez prozesuaz gozatzera. Orain, ordainduta ere ez nintzen Everestera joango.

### Ez?

Ez. 2000. urtean joan nintzen eta orduan dagoeneko ikusten zen aldaketa, baina eskerrak orduan joan nintzen. Iruditzen zait urte gutxi barru, aberatsek bakarrik egingo dituztela horrelako mendiak. Gu lagun talde bat hasi ginen, poliki-poliki mendiak eginez, garaiera baxuagokoekin hasi eta ondoren mendi teknikoagoak egiten, ikastaroak ere jasoz... prestatuta joan behar zara halako mendietara, eta gaur egun 8.000koak askok egiten dituzte, prestatuta egon gabe ere bai. Berdin da 100 metrora oxigenoa jarri behar badizute ere edo xerpa asko eramatea, jendearen buruan gailurra egitea besterik ez dago.

### Xerpak ere beti izan dira ezbaian.

Horrelako espedizio bat egiterako orduan, pakete horretan sartzen dira bai edo bai, oinarritzko kanpamendura arte sukaldari eta sukaldari laguntzaile bat, eta gehienetan gida bat ere bai, badaezpada. Hortik



aurrera, hurrengo kanpamenduetarako xerpa behar baduzu, ordaindu egin behar duzu. Guk ikusi ditugu xerpak motxila handiak eramaten, eta mendizalea ia pisurik gabe. Ez dakit, ba... guk beti, azkeneko espedizioan salbu, 20-25 kiloko motxila gainean eraman izan dugu. Bertan eramaten dituzu oinarritzko gauzak: ura, sokak, kranpoiak, gelak, lo egiteko denda... Eta noski, ez da erraza halako pisuarekin ibiltzea.

Baina bai, izugarria da xerpak ikustea. Halako abenturetan askotan ezinean zaude eta alboan normaltasun osoz ikusten dituzu, aise, 8.000ko mendi bat igotzen ariko ez balira bezala. Duten erraztasuna izugarria da.

### Gauza bitxiak ere ikusitakoa zara garaiera horietan.

Oso ondo akordatzen naiz, 8.000ko mendi baten oinarritzko kanpamenduan talde bat ikusi nuen, borobilean jarrita. 'Ah, begira, jolasen batean arituko dira' esan nion lagunari, alpinismoko kurtso batean zeudela ohartu nintzen arte. Kranpoiak erabiltzen ikasten ari ziren, eta kolonbiar batek alderantziz jantzi zituen, hau da, puntak izotzean beharrean bere zapatilan. Aipatu egin nion gaizki ari zela, eta eskerrak eman zizkidan: "esaten nuen ba nik horrela ezingo zela izan". Etxera bueltatzeko iradoki nion, ezin nuen sinetsi nola ari ziren horrelako zerbait egiten halako garaieretan, non zure bizia jokoan jarri dezakezun, baina albokoarena ere bai.

### Oro har, mendia beti izan da zure bizitzako parte?

Bai, baina txikitik errugbian ibiltzen nintzen. Halako batean aldaketarako gogoia neukan, eta lagun batekin batera bizikletan joan ginen Ordiziatik Isabara arte. Bertan hainbat mendi egin genituen, Hiru Erregeen Mahaia, Petrechema, Acherito... Oroitzen naiz Frantziatik egin genuela itzulera eta han, Pirinioak bere osotasunean ikustean, txundituta gelditu nintzen. Bizitza guztirako droga topatu nuen paisaia horietan.

### Pirinioak zeharkatu ostean, mendiz mendi jarraitu zenuen.

Bai, Alpeak eta Andeak, eta orduan hasi ginen altuera handiagoko mendiak egiten. Prozesu bat izan zen. 6.000 eta 7.000ko mendi asko daude, oso ederrak direnak. Bereziki piramide forma dutenak gustatzen zaizkit.

### Mendiak badu bere alde gordina, eta zuk gertutik ezagutu duzu.

Esperientzia horiek bizitza osorako zurekin eramaten dituzu eta bat baino gehiago izan ditut. 2004an, esaterako, Xabier Ormazabal urretxuarra Cho Oyu mendian gelditu zen. Aurretik beste mendi batzuk egin zituen beste mendizale batzuekin; ni beste kide batzuekin joan nintzen. Mendiko itzulera amaituta, banekien lo leku berean egiten genuela eta bertan esan ziguten mendia jaisterakoan bertan gelditu zela. Ezin genuen sinetsi. Haiek lo-lekura negarrez iristean ohartu ginen hala izan zela. Kolpe latza izan zen. Oraindik ere egunero oroitzen naiz harengana Urretxura joan nintzenean bere amak esandako hitzak: "berdin zait gailurra egiten duzuen edo ez, baina nire semea ekarri bueltan". Eta pentsa hitz horiek zeinen gogorrak diren jakinez semea mendian gelditu dela betiko. Askok markatu zidan horrek. Cho Oyu mendia berriz igo nuen 2014 urtean eta bertan Xabierren omenez arrosa batzuk utzi genituen tontorrean.



### Behatetako falange batzuk ere galdu zenituen.

Bai, Everesten izan zen. Igoera izugarri ondo egin genuen nire lagun Alfredo Garciak eta biok, baina jaitiera oso gogorra izan zen. Jaisten hasi eta eguraldia txartu eta Alfredo erori egin zen. Altxatu baina berriz ere jausi egiten zen, ezin zuen ondo jarraitu beherantz. Eskularruekin ezin nituen mugimenduak ondo egin eta kendu egin nituen. Hala nola lortu genuen hirugarren kanpamendura iristea eta bertan utzitako denda zabalik topatu genuen, guztiz elurtuta, eta gu deshidratatuta geunden oso. Ordurako nire behatzak ez nituen sentitu ere egiten. Xerpa bat azaldu zen eta erregutu nion mesedez tratua egiteko: sua eta ontzi bat gure dendaren truke. Onartu egin zuen eta bizitza salbatu genuela uste dut. Tratua egin ostean denbora eman genuen ura edan eta edan, berriz ere hidratatzen. Askok luzatu gabe, kanpaleku nagusira itzultzeko bidea hartu genuen, eta beherantz gindoazela lau xerpa azaldu ziren. Ez dakit nola zekiten laguntza behar genuela, baina han azaldu ziren. Ni nahiko ondo nengoen eta xerpa batekin jatsi nintzen eta beste hirurak Alfredo laguntzen gelditu ziren. Gu arratsalderako beheran geunden, eta handik ia 9 ordura azaldu zen Alfredo.



### Azaldu arteko une horiek, nola oroitzen dituzu?

Oso luzeak egin zitzaizkidan. Alfredo onik iritsi zela ikustean izugarritzko lasaitasuna hartu nuen.



**Behatzak belztuta iritsi zinen.**

Bai, belarriak, sudurra, eskuko hatzak eta hanketakoak ere hala nituen. Pentsatzen nuen galdu egingo nituela, oso gaizki pasatu nuen. Azkenean ebakuntzak egin eta eskuko bi hatzetako lehen falangeak eta beste bi hatzetako bi falangeak galdu nituen. Oso gogorra izan zen hura guztia. Cho Oyu mendian ere izan nituen beste izozte batzuk. Beldur handia pasatzen duzu halakoetan.

**Hala ere, mendira itzultzen zara beti**

Nire pasioa da. Asko kendu dit, baina asko ematen dit. Horrenbeste gustatzen zait, ezin dudala ez joan. Pentsa, ez dakidanean zein izango den egingo dudan hurrengo mendia urduri egoten naiz, hori erabaki arte ez naiz lasai egoten. Eta badakit urteak aurrera doazela eta geroz eta zailagoa izango dela, baina azaldu ezin den lasaitasuna ematen dit mendiak.

Nik nahiago ditut halako bidaiak lagunekin egin. Beste aukera bat espedizio komertzialak egitea da, non agentzia batekin harremanetan jartzen zaren eta hark antolatzen dizun dena. Baina oro har nahiago dut lagunekin egin.

**Eta orain, zein mendi egiteko gogoz zaude?**

Komunismo mendia. Bi saiakera egin ditut baina tontorra ez dut zapaldu oraindik. Behin 100 metrora gelditu nintzen, izugarriko haize boladak hasi ziren eta ezin nuen aurrera egin. Tontor hori eginda, Elurretako Lehoinabarra osatuko nuke. Beste lau zazpimilakoak eginda ditut: Korzhenevskaiia (7.105 m.), Khan Tengri (7.010 m.), Ibn Sina edo Lenin (7.134 m.) eta Jengish Chokusu edo Pobeda (7.439 m.). Komunismo mendiak edo Ismail Samani mendiak 7.495 metro ditu. Oraintxe ilusio handiena hori egiteak ematen dit, Xabier Ormazabalek ere zapaldu zituen bost tontor horiek.

**Twin  
Melody**

“**Kritikak baino askoz ere gehiago dira jasotzen ditugun mezu onak**”



### Aurten Benidorm Fest-en parte hartzeko aukera izan duzue. Nolako izan da esperientzia?

Esperientzia oso polita izan da, pila bat ikasi dugu. Lehenengo aldiz parte hartu dugu Benidorm Fest jaialdian eta oso aberasgarria izan da, pertsona berriak ezagutzeko aukera izan dugu, lagun berriak egiteko... eta, batez ere, esperientzia hartu dugu eszenatoki gainean. Horrez gain, jende gehiagok ezagutzeko aukera ere bada eta halako jaialdi handi bat izanda, eszenario handiago batean egotea ere bai. Zalantzarik gabe, esperientzia oso polita izan da eta asko ikasi dugu.

### Sayonara kantuarekin aurkeztu zarete. Zuek sortutakoa izan da, ezta? Nolako izaten da kantu bat sortzearen prozesua?

Bai, beste bi konposatzaileekin batera sortu genuen Sayonara kanta, Jonathan eta Nataliarekin batera. Kantu bat sortzearen prozesua hiru modutakoa izan daiteke: guk etxean egitea hutsetik hasita pianoa jotzen eta ondoren letrak sortuz; hainbat konposatzaile elkartuta sortzea kantu berria, eta azkeneko modua abesti bat osatuta eman eta zuk moldatzea, zure egitea da. Azken modu hau da gutxien erabiltzen duguna, beti saiatzen gara gure abestiak konposatzen eta sortzen.

### Gorroto hitzak jasan zenituztela salatu zenuten. Sare sozialetan, tamalez, askotan gertatzen den zerbait da, ezta?

Ba, bai, egoera hori salatu egin genuen, tamalez askotan gertatzen den zerbait delako salatu genuen. Azken finean, guztiok gara pertsonak eta denoi eragiten digu komentario txar bat esaten digutenean. Kasu honetan, partaide guztiok izan ditugu kritikak, horrenbeste jendek ikusten du... baina ona dela deritzogu gure iritzia zein den jakinaraztea, kontuan hartua izan dadin eta halako kritikak egiten dituztenei lekuri ez emateko. Hala ere, guk kritika onak eta txarrak banandu egiten ditugu; batzuk mina emateko esaten dituzte, eta besteak hobetzeko. Guri berdin zaigu kritika eraikitzaileak egiten badizkigute, hobetzeko baldin badira ongi etorriak izaten dira, baina mina emateko helburuarekin egiten badira ez.

### Nola egiten zaie aurre halako mezuei?

Guk gure bidea jarraituko dugu, bideoak, abestiak, eta lehiaketa edo jaialdietan parte hartzen. Inor mintzen ez dugun bitartean, horretan jarraituko dugu. Bakoitzak gustatzen zaiona egiten jarraitu behar du, gorroto mezu horiei lekuri eman gabe.

### Youtuben hasi zineten orain dela 10 urte bideoak igotzen. Inoiz pentsatu zenuten gaur egun zaudeten lekura iritsiko zinetela?

Nahiz eta beti amesten duzun, ez genuen espero. Pentsa, gu Youtuben hasi ginenean oraindik TikTok plataforma ez zen existitzen. Ez genuen inoiz pentsatu jendeak gu ezagutzera iritsiko ginenik. Jendeak disfrutatzeke hasi ginen bideoak egiten, abesten eta pianoa jotzen, eta bertsio ezberdinak egiten. Oso eskertuta sentitzen gara jaso dugun babes guztiagatik. Eta nabarmendu behar dugu kritikak baino askoz ere gehiago direla jasotzen ditugun mezu onak, fokua gauza onetan jartzea gustatzen zaigu, ohartzea jende askoren babesa dugula eta hori dela garrantzitsua.

### TikToken 18.5 milioi jarraitzaile dituzue. Nolako izan da eboluzioa horraino iritsi arte?

Orain dela bost urte hasi ginen plataforma horretan edukiak igotzen. Hasi eta sei hilabete ingurura bideo bat birala egin zen, 'Dame tu cosita' bideoarena eta hortik bideo gehiago hasi ziren ezagunak egiten. Gutxika hasi ginen, eta oso pozik eta eskertuta gaude eboluzioarekin.

## “Betri saiatzen gara gure abestiak konposatzen eta sortzen”

### Gainontzeko sare sozialetan ere jarraitzaile kopuru handia duzue (Instagramen 1.5 milioi jarraitzaile, adibidez). Zergatik uste duzue, baina, TikToken halako arrakasta duzuela?

Saiatzen gara ahalik eta bideo entretenigarrienak egiten, baina kalitatea ere zaintzen dugu. Egiten ditugun bideoen artean aukera zabala dago, tutorialak, dantzak, abestiak... baina TikTokeko arrakastari buruz jarraitzaileei galdetzea izango zen onena.

### Bideo laburrak ikusten dira plataforma horretan, bai, baina lan handia eskatzen du, ezta?

Egia esan, bai. Ez ditugu dantzak bakarrik egiten. Tutorial berriak egin eta kreatibitatea duten ideiak bilatzen ditugu. Baina ideia izateaz gain, hori guztia gauzatu ere egin behar da, beharrezko materiala, lekua, arropa... guztia lotu behar da. Edukiaren araberakoa izaten da bideoaren lan maila, hau da, dantzak bakarrik badira normalean azkarrago egiten ditugu, baina trantsizioak dituztenak badira, denbora gehiago behar izaten da. Tutorialak ere bere denbora eskatzen dute. Bideo labur horiek egiteak dirudien baino lan gehiago du.

### Nola planifikatzen dituzue publikazioak edo edukia?

Saiatzen gara astero 3-4 bideo igotzen. Bilera txiki bat egiten dugu etxean biok eta bakoitzak dituen ideiak azaltzen ditu, eta horietatik batzuk aukeratu eta gauzatu egiten ditugu.

### Eduki sortzaile izateaz gain, irakasle ikasketak ere egin dituzue. Etorkizunean bertan aritzea gustatuko litzazueke?

Egia esan bai. Orain oso ondo gaude sare sozial, telebista eta musikarekin, baina ez dugu baztertzeko etorkizun batean irakasle izatea.

### Zein amets du Twin Melodyk?

Amets asko; laburbilduz, zoriotsu izatea egiten dugunarekin, aurrera jarraitzea eta gozatzea. Bideaz disfrutatzea.

## “ Ahora, ni pagando hubiera ido al Everest ”



### Pedro Garcia

#### Recién ascendido el Himlung de 7.126 metros en noviembre, ¿vuelves a pensar en la montaña?

Sí, iré junto a mi mujer, Amalia Iglesias, a subir varias montañas en verano, nuestra idea es ir hacia la India y subir unas montañas de 6.000. No vamos a hacer montañas muy técnicas, nuestra idea es sufrir poco y disfrutar. Después también me gustaría hacer algún 8.000 con mis amigos y amigas, pero todavía no está definido y no va a ser tan fácil.

En definitiva, en el mundo de muchos de mi grupo de amigos y amigas ahora no está subir una montaña 8.000 y es normal, entre familia, etc, tienen otros planes. Y claro, tienes que confiar ciegamente en la persona con la que vas. Cualquier pequeño desliz en esas alturas puede poner en juego tu vida y en esos momentos, si necesitas ayuda, tienes que tener claro que tu acompañante hará todo lo posible para no dejarte ahí. Primero están mis amigos y amigas y después la montaña.

#### También habrá habido mejoras en el material.

Ha habido cambios enormes en el material. Las botas y piolets de cuero de montaña se usaban hace unos años en madera. Si esas personas hubieran tenido el material de ahora, se habrían comido el mundo. No sólo ha habido un cambio importante en la calidad, sino también en el peso. Hoy en día se hacen materiales muy buenos y son muy ligeros.

#### ¿Ha experimentado cambios el montañismo en los últimos años?

Diría que, lamentablemente, se está perdiendo ese encanto del montañismo. Mucha gente solo va a hacer cumbres, no a disfrutar del proceso. Ahora, ni pagando hubiera ido al Everest.

#### ¿No?

No. Me fui en el año 2000 y entonces ya se veía el cambio, pero menos mal que me fui entonces. Me parece que dentro de pocos años, sólo las personas ricas harán este tipo de montañas. Nosotros empezamos un grupo de amigos y amigas, haciendo poco a poco montañas, empezando por las de más baja altura y haciendo después montañas más técnicas, recibiendo cursos, también tienes que ir preparado a esas montañas y hoy en día los 8.000 los hacen muchas personas, incluso sin estar preparadas. Da igual que te tengan que poner oxígeno cada 100 metros o llevar muchos sherpas, no queda otra que hacer cumbre en la cabeza de la gente.

#### Los sherpas siempre han estado ahí.

A la hora de realizar una expedición de este tipo, se incluye en ese paquete, sí o sí, un cocinero o cocinera y ayudante de cocina hasta el campamento base, y la mayoría de las veces también un o una guía por

precaución. A partir de ahí, si necesitas sherpa para los próximos campamentos, tienes que pagar. Nosotros hemos visto a los sherpas llevar mochilas grandes, y al montañero o montañera casi sin peso. No sé, nosotros y nosotras siempre, salvo en la última expedición, hemos llevado encima una mochila de 20-25 kilos. Allí llevas las cosas básicas: agua, cuerdas, crampones, sacos, tienda para dormir, y por supuesto, no es fácil caminar con tanto peso.

Pero sí, es terrible ver sherpas. En este tipo de aventuras muchas veces estás impotente y les ves al lado con total normalidad, como si no estuvieran subiendo una montaña de 8.000. La facilidad que tienen es enorme.

### También habrás visto cosas curiosas.

Me acuerdo muy bien, en el campamento base de una montaña de 8.000 vi a un grupo colocado en círculo. Ah, mira, van a jugar a algún juego, le dije a mi acompañante, hasta que me di cuenta de que estaban en un curso de alpinismo. Estaban aprendiendo a utilizar crampones y un colombiano los vistió al revés, es decir, las puntas en vez de en el hielo en su zapatilla. Le dije que lo hacía mal y me dio las gracias: yo decía que así no podría ser. Le sugerí que volviera a casa, no podía creer cómo estaban haciendo algo así en tales alturas que te puedes jugar la vida.

### En general, ¿la montaña siempre ha formado parte de tu vida?

Sí, pero de pequeño jugaba a rugby. En un momento dado tenía ganas de cambio y junto a un amigo fuimos en bicicleta desde Ordizia hasta Isaba. Allí hicimos varios montes, la Mesa de los Tres Reyes, el Petrechema, el Acherito... Recuerdo que hicimos el regreso desde Francia y allí, al ver los Pirineos en su totalidad, me quedé asombrado. Encontré droga para toda la vida en esos paisajes.

### Después de atravesar los Pirineos, seguiste de montaña en montaña.

Sí, los Alpes y los Andes, y entonces empezamos a hacer montañas de mayor altura. Fue un proceso. Hay muchas montañas de 6.000 y 7.000 que son muy hermosas. Me gustan especialmente las que tienen forma de pirámide.

### La montaña tiene su lado crudo, y tu lo has conocido de cerca.

Esas experiencias las llevas contigo de por vida y he tenido varias. En 2004, por ejemplo, el urretxuarra Xabier Ormazabal se detuvo en el monte Cho Oyu. Anteriormente había hecho otras montañas con otros montañeros; yo fui con otros compañeros. Terminada la vuelta al monte, sabía que dormíamos en el mismo sitio y allí nos dijeron que al bajar la montaña se había detenido en él. No nos lo podíamos creer. Al llegar llorando a la tienda nos dimos cuenta de que así había sido. Fue un duro golpe. Sigo recordando cada día las palabras de su madre cuando fui a Urretxu: "Me da igual si hacéis cumbre o no, pero traed a mi hijo de vuelta". Y piensa que sabiendo lo duras que son esas palabras, su hijo se ha quedado para siempre en la montaña. Eso me marcó mucho. Volví a subir el Cho Oyu en 2014 y allí dejamos unas rosas en honor a Javier en la cima.



### También perdiste algunas falanges de los dedos.

Sí, fue en el Everest. El ascenso lo hicimos increíblemente bien mi amigo Alfredo García y yo, pero el descenso fue muy duro. Empezé a bajar y el tiempo se torció y Alfredo cayó. Se levantaba pero caía otra vez, no podía seguir bien hacia abajo. Con los guantes no podía hacer bien los movimientos y me los quité. Así conseguimos llegar al tercer campamento y encontramos la tienda que habíamos dejado abierta, completamente nevada, y nosotros estábamos muy deshidratados. Para entonces ni siquiera sentía mis dedos. Apareció un sherpa y le rogué que me hiciera el favor de hacer el trato: fuego y agua a cambio de nuestra tienda. Lo aceptó y creo que salvamos la vida. Tras el trato pasamos un tiempo bebiendo y bebiendo agua, hidratándonos de nuevo. Sin alargarnos mucho, tomamos el camino de regreso al campo base, y cuando bajábamos aparecieron cuatro sherpas. No sé cómo sabían que necesitábamos ayuda, pero allí se presentaron. Yo estaba bastante bien y me bajé con un sherpa y los otros tres se pararon a acompañar a Alfredo. Nosotros estábamos abajo para la tarde, y casi 9 horas después apareció Alfredo.



### Esos momentos... ¿cómo los recuerdas?

Se me hicieron muy largos. Al ver que Alfredo había llegado sano y salvo, me llevé un alivio tremendo.



### Llegaste con los dedos ennegrecidos.

Sí, también tenía las orejas, la nariz, los dedos de la mano y los de las piernas. Pensaba que los perdería, lo pasé muy mal. Al final me operé y perdí las primeras falanges de los dos dedos de la mano y las dos falanges de los otros dos dedos. Todo aquello fue muy duro. También tuve otras heladas en el Cho Oyu. Pasas mucho miedo en esos casos.

### Sin embargo, siempre vuelves al monte.

Es mi pasión. Me ha quitado mucho, pero me da mucho. Me gusta tanto que no puedo dejar de ir. Imagínate, cuando no sé cuál será la próxima montaña que voy a hacer suelo estar nervioso, hasta que no decido eso no estoy tranquilo. Y sé que los años pasan y que cada vez será más difícil, pero la montaña me da una tranquilidad inexplicable.

Yo prefiero hacer este tipo de viajes con mis amigos y amigas. Otra opción es hacer expediciones comerciales en las que te pongas en contacto con una agencia y ésta te lo organiza todo. Pero en general prefiero hacerlo con mis amigos y amigas.

### Y ahora, ¿qué montaña estás con ganas de hacer?

El Pico Comunismo. He hecho dos intentos pero la cima no la he pisado todavía. Una vez me detuve a 100 metros, empezaron ráfagas de viento enormes y no podía avanzar. Hecho ese pico, haría el Leopardo de las Nieves. Tengo pensadas otras cuatro líneas: Korzhenevskaja (7.105 m.), Khan Tengri (7.010 m.), Ibn Sina o Lenin (7.134 m.) y Jengish Chokusu o Pobeda (7.439 m.). El Pico Comunismo o Ismail Samani mide 7.495 metros. Ahora mismo la mayor ilusión me la da hacerlo, esos cinco picos que también pisó Xabier Ormazabal.

## Twin Melody

“

Recibimos  
muchos  
más  
mensajes  
buenos  
que  
críticas

”



### **Este año habéis tenido la oportunidad de participar en Benidorm Fest. ¿Cómo ha sido la experiencia?**

Ha sido una experiencia muy bonita, hemos aprendido un montón. Hemos participado por primera vez en el Benidorm Fest y ha sido muy enriquecedor, hemos tenido la oportunidad de conocer a nuevas personas, de hacer nuevos amigos y amigas, sobre todo, hemos adquirido experiencia sobre el escenario. También es posible conocer a más gente y estar en un escenario más grande con un festival tan grande. Sin duda, la experiencia ha sido muy bonita y hemos aprendido mucho.

### **Os habéis presentado con la canción Sayonara. Fue la que compusisteis ¿no? ¿Cómo suele ser el proceso de creación de una canción?**

Sí, creamos la canción Sayonara junto a otros dos compositores, Jonathan y Natalia. El proceso de crear una canción puede ser de tres maneras: hacerlo nosotras en casa desde cero tocando el piano y luego creando las letras; crear la nueva canción juntando varios compositores o compositoras, y la última manera es que te la den compuesta y arreglarla tú, hacerla tuya. Esta última forma es la menos utilizada, siempre intentamos componer y crear nuestras propias canciones.

### **Denunciásteis que habíais sufrido mensajes de odio. En las redes sociales, lamentablemente, es algo que ocurre a menudo, ¿no?**

Pues sí, denunciamos esta situación porque lamentablemente es algo que ocurre muchas veces. Al fin y al cabo, todos y todas somos personas y nos afecta cuando nos hacen un mal comentario. En este caso, todos los y las participantes hemos recibido críticas, es bueno dar nuestra opinión para que sea tenida en cuenta y no se dé cabida a quienes la hacen. Sin embargo, nosotras separamos las críticas buenas de las malas; unas las dicen para herir y otras para mejorar. A nosotras nos da igual si nos hacen críticas constructivas, si son para mejorar suelen ser bienvenidas, pero si se hacen con el objetivo de hacernos daño no.

### **¿Cómo se afrontan estos mensajes?**

Nosotras seguiremos nuestro camino, participando en vídeos, canciones, concursos o festivales. Mientras no ofendamos a nadie, seguiremos haciéndolo. Tenemos que seguir haciendo lo que le gusta, sin dar cabida a esos mensajes de odio.

### **Empezasteis a subir vídeos en Youtube hace 10 años. ¿Pensasteis alguna vez que llegaríais a donde estáis hoy?**

Aunque siempre sueñas, no nos lo esperábamos. Imagínate, cuando nosotras empezamos en Youtube todavía la plataforma TikTok no existía. Nunca pensamos que la gente llegaría a conocernos. Empezamos a hacer vídeos para que la gente disfrutara, cantando y tocando el piano, y haciendo diferentes versiones. Nos sentimos muy agradecidas por todo el apoyo que hemos recibido. Y debemos destacar que son muchos más los mensajes buenos que recibimos que las críticas, nos gusta poner el foco en las cosas buenas, ser conscientes de que tenemos el apoyo de mucha gente y eso es lo importante.

### **En TikTok tenéis 18.5 millones de seguidores. ¿Cómo ha sido la evolución hasta llegar hasta ahí?**

Hace cinco años empezamos a subir contenidos en esta plataforma. A los seis meses de empezar se hizo viral un vídeo, el de "Dame tu cosita", y a partir de ahí empezaron a hacerse populares más vídeos. Empezamos poco a poco y estamos muy contentas y agradecidas con la evolución.

## “Siempre intentamos componer y crear nuestras propias canciones”

### **En el resto de redes sociales también tenéis un gran número de seguidores (1.5 millones de seguidores en Instagram, por ejemplo). ¿Por qué creéis que tenéis tanto éxito en TikTok?**

Intentamos hacer vídeos lo más entretenidos posible, pero también cuidamos la calidad. Entre los vídeos que hacemos hay un amplio abanico, tutoriales, bailes, canciones gratis pero lo mejor sería preguntar a los seguidores y seguidoras sobre el éxito de TikTok.

### **Se ven vídeos cortos en esa plataforma, sí, pero requiere mucho trabajo, ¿no?**

La verdad es que sí. No sólo bailamos. Hacemos nuevos tutoriales y buscamos ideas que tengan creatividad. Pero además de tener una idea, todo eso hay que llevarlo a cabo, hay que preparar el material necesario, el lugar, la ropa... El grado de trabajo del vídeo depende del contenido, es decir, si sólo son bailes normalmente los hacemos más rápido, pero si son los que tienen transiciones se tarda más. Los tutoriales también piden su tiempo. Hacer esos vídeos cortos tiene más trabajo del que parece.

### **¿Cómo planificáis las publicaciones o el contenido?**

Intentamos subir 3-4 vídeos semanales. Hacemos una pequeña reunión en casa las dos y cada una expone las ideas que tiene, de las cuales algunas las elegimos y las ejecutamos.

### **Además de ser creadoras de contenidos, también habéis cursado estudios de magisterio. ¿Os gustaría dedicaros a ello en el futuro?**

La verdad es que sí. Ahora estamos muy bien con las redes sociales, la televisión y la música, pero no descartamos trabajar como profesoras en un futuro.

### **¿Cuál es el sueño de Twin Melody?**

Muchos sueños; en resumen, ser felices con lo que hacemos, seguir adelante y disfrutar. Disfrutar del camino.



**“Ikusgai dugun Renault automobila “Plazatxo” berriaren goialdean dago kokatuta. Plazako ohiko zuhaitzak landatu berriak dira, 1904ko irailean ospatuko ziren “Euskal Jaietarako” prest. Edonork ezagut dezake irudiaren eskuinera kokatutako eraikina, izan ere, duela urte gutxira arte “Garagartzako Atearen” parean egon zen lekututa”.**

Iturria: Pablo Weeber-en argazkia. EuskoTren/Burnibidearen Euskal Museoaren Artxiboa.

(Testua Iturria: Marti Garcia Garmendia “Bagoi fabrika eta haren eragina Beasainen eta Ordizian (1901/1925)” liburuan.

*“El automóvil Renault que observamos se sitúa en la parte superior de la nueva “Prazuela”. Los clásicos árboles de la misma están recién plantados para las próximas “Ferias Vascas” a celebrarse en Septiembre de 1904. Todo el mundo reconoce el edificio situado a la derecha de la imagen, pues hasta hace pocos años estuvo situado frente a la “Puerta de Garagarza”.*


Fuente: Fotografía de Pablo Weeber. Archivo EuskoTren/Museo Vasco del Ferrocarril.

(Texto Martin Garcia Garmendia en “La fábrica de vagones y su influencia en Beasain y Ordizia (1901-1925).”



## DENBORA PASA

LABIRINTOIA



SUDOKU

	7	8						
	6		2	8				5
			7	3				
7				4		9	6	3
8		6				5		7
	4		5	6		2		
5	3		6					8
		2			8	7		
9						3	2	

Erantzunak [www.ordizia.eus](http://www.ordizia.eus) helbidean | Soluciones en [www.ordizia.eus](http://www.ordizia.eus)

Erredakzioa | Redacción: Ordiziako Udala.

Diseinua eta maketazioa | Diseño y maquetación: Eukene Lekuona

Zenbaki honetan honakoek parte hartu dute | En esta edición ha participado: Pedro Garcia eta Twin Melody.

Irukin edo proposamenen bat baduzu idatzi [komunikazioa@ordizia.eus](mailto:komunikazioa@ordizia.eus) helbidera, eta bertan erantzuna emango zaizu. Ordiziar guztien parte hartzea eskertua izango da aldizkaria osatzerako garaian.


Si tienes alguna sugerencia o propuesta, no dudes y ponte en contacto escribiendo a [komunikazioa@ordizia.eus](mailto:komunikazioa@ordizia.eus). Todas las aportaciones serán bienvenidas para poder crear esta revista.





### DENBORA PASA

LABIRINTOIA



SUDOKU

2	7	8	4	5	1	6	3	9
1	6	3	2	8	9	4	7	5
4	9	5	7	3	6	8	1	2
7	5	1	8	4	2	9	6	3
8	2	6	9	1	3	5	4	7
3	4	9	5	6	7	2	8	1
5	3	7	6	2	4	1	9	8
6	1	2	3	9	8	7	5	4
9	8	4	1	7	5	3	2	6